

# **AUTOTAXI ETA ALOGERAKO GAINERAKO IBILGAILUEN ZERBITZUEI BURUZKO TASAK. 2017. URTEA**

## **ORDAINARAZPENAREN IZAERA**

Lehen artikulua.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. art.ak emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Udalak zerga Ordenantza honek eraenduko duen autotaxi eta alojerreko gainontzeko ibilgailuen lizentziari buruzko Tasa ezartzen du; Ordenantzaren arauak arestian aipatu Foru Arauak agindutakoari erantzungo diote.

## **ZERGA EGITATEA**

2. artikulua. Tasa horren zerga egitatea izango dira: ekainaren 29ko 2/2000 Euskadiko Legeak onartutako Araudiak aipatzen dituen autotaxi eta alojerreko gainontzeko ibilgailuen lizentziei dagozkien zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea:

a) Lizentzien emakida eta luzapena.

b) Lizentziak eskualdatzeko eskuespena lizentziak ematea bidezkoa denean eta indarreko legeriaren arabera.

## **SUBJEKTU PASIBOA**

3. artikulua.- Zergadun subjektu pasibo gisara Tasa ordaintzeko betebeharra dute Zerga Lege Orokorrak aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak:

1.-Lizentziaren emakida eta luzapena jasotzen dituen pertsonak edo erakundeak edota lizentziaren eskualdaketa eskuesten zaion pertsonak.

2.- Lizentziaren titular izanik, ibilgailua ordeztzen zaion pertsona edo era arruntean edo berezian berrikusten zaiona eta pertsona horren erregistro liburuak diligentziatuak direnean.

## **ERANTZULEAK**

4. artikulua.- 1.- Subjektu pasiboaren zergak ordaintzeko betebeharrei erantzungo dizkiete Zergei buruzko Foru Arauaren 41. art.ak aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

## **ZERGA KUOTA**

5. artikulua.- Zerga kuota zerbitzuaren edo jardueraren izaera kontutan izanik finkatutako kopuru batek zehaztuko du honako tarifaren arabera:

- a) Lizentziak ematea eta igortzea. Lizentzia bakoitzeko: **1.225,00 euro**
- b) Baimendutako lizentzien eskualdaketa, hori titularra hil delako eta hartzailea hildakoaren oinordekoa delako eskualdatzen denean salbu: **1.225,00 euro**

## **SALBUESPENAK ETA HOBARIK**

6.-Tasaren ordainketan ez da inolako salbuespen edo hobaririk izango.

## **SORTZAPENA**

7.- Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra jaioko da bigarren artikulua a), b) hizkietan adierazitako kasuetan eta Udal honek lizentzia ematen eta luzatzen duen egunean edo ibilgailuaren ordezkia eskuesten duen egunean.

## **AITORPENA SARRERA EGITERAKOAN**

8-1.- Tasa honen menpeko jarduerak egitea eta zerbitzugintza alderdiak eskaturik gauzatuko dira.

2.-Kuota guztiak likidatuko dira zuzenean sartzeko, lizentziak edo eskuespenak eman ondoren eta eskatutako zerbitzuak gauzatu ondoren; horrez gain, zergadunek ordainketa egin beharko dute Zergabilketari buruzko Araudi Orokorrak ezarritako epean.

## **URRATZEAK ETA ZEHAPENAK**

9.-Zerga urratzeen kalifikazioari eta urratzeei dagozkien zehapenen gaineko guztian Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 183 eta ondorengo art.etan xedatutakoari lotuko zaio.

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantzaren oraingo testua 1989ko irailaren 29an Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen eta 1990eko azaroaren 30eko, 1991ko abenduaren 20ko, 1992ko azaroaren 27ko, 1993ko azaroaren 26ko, 1994ko azaroaren 25eko, 1997ko urtarrilaren 31ko, 1997ko abenduaren 19ko eta 1998ko abenduaren 18ko, 2001eko irailaren 28ko, 2003eko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26ko, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, osoko bilkuren erabakiz aldarazia izan zen; Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Ordenantzaren oraingo testuak ondoreak ekarriko ditu 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean iraungo du testua aldatzea edo idargabetzea erabakitzen ez den bitartean.